



A partir del 14 de abril en toda la diócesis de Bilbao

Caritas Bizkaia propone en su nueva campaña ceder viviendas vacías para personas en situación de exclusión social

Los principales objetivos de la campaña “Ni casas sin personas ni personas sin casa” son ofrecer una vivienda digna a personas y familias en situación de exclusión social o riesgo grave de exclusión; proporcionar a esas familias un acompañamiento a través de un plan de inserción para que desarrollen capacidades y cualidades que faciliten su proceso de mejora en aspectos personales, relacionales, laborales y de alojamiento y –finalmente- sensibilizar y denunciar ante la sociedad de la actual situación de muchas familias para las que la vivienda se ha convertido en un factor de exclusión social.

i **Caritas Bizkaia. Bilbao, 11 de abril de 2013.-** Muchos sectores de la población siempre han tenido muy difícil el acceso a una vivienda digna. Pero a ese problema histórico, en la actual crisis económica se le suma algo mucho más dramático: la pérdida de la vivienda por motivos económicos. En Euskadi se superan anualmente las 1.100 ejecuciones hipotecarias y en el resto de España la cifra de los últimos 5 años supera las 350.000 (*datos proporcionados por el Consejo General del Poder Judicial*).

Las personas afectadas por estos desahucios pertenecen a los sectores sociales más castigados por la crisis: las que han perdido el trabajo, especialmente las que se encuentran en situación de paro de larga duración, y de éstas, los colectivos tradicionalmente más vulnerables: inmigrantes o familias monoparentales. Esta dolorosa realidad condena de por vida a muchas personas y familias a una situación de exclusión social.

El Derecho a la vivienda es un derecho básico, no solo en las leyes nacionales (Constitución...) e internacionales (Declaración Universal de los Derechos Humanos), sino en la propia Doctrina Social de la Iglesia (DSI).

Partiendo de ellos, Caritas Bizkaia puso en marcha en 2002 un programa de ‘Viviendas Puente’, para acoger a personas o familias sin ingresos o con rentas inferiores a la RGI (Renta de garantía de ingresos) por unidad de convivencia. En 2004 ya se hizo una acción significativa sobre la situación de la vivienda en Bizkaia (y en general) que incluyó una campaña titulada “¿Quién tiene la llave? / Zeuk dozu Giltza?”.

En 2012, 139 personas fueron acompañadas por Caritas Bizkaia en este programa a través de sus proyectos: ‘vivienda puente’ y ‘vivienda estable’.

CÓMO COLABORAR:

Desde Cáritas proponen tres acciones concretas a la ciudadanía de Bizkaia a raíz de la puesta en marcha de esta campaña: poner las viviendas vacías a disposición de Cáritas de forma gratuita o con un alquiler reducido para que la entidad las dedique a las personas más necesitadas que está atendiendo; aportar recursos económicos (a través de donativos o haciéndose socios de Cáritas) para la adecuación, mantenimiento y gastos de las viviendas que se gestionan y –por último- compartir el tiempo de cada persona en una labor de voluntariado acompañando a las familias que están siendo atendidas en los diferentes pisos.

SOBRE LA CAMPAÑA:

Esta campaña se lanzará el fin de semana del 13 y 14 de abril de 2013 dirigida especialmente a la comunidad cristiana de Bizkaia, pero también se hará llegar todo lo posible a la sociedad en general.

Para ello, se han mandado sobres con los materiales impresos a las 300 parroquias y centros de culto de toda Bizkaia, a los centros de Cáritas, órdenes religiosas, centros educativos de la Iglesia, etc. Cada sobre contiene carteles de diversos tamaños, folletos una carta del director de Cáritas presentando la campaña y un auxilio litúrgico para apoyar las eucaristías de esos días. Además, todos estos materiales están ya hace días disponibles en la página web de Cáritas Bizkaia (www.caritasbi.org), así como en sus perfiles de facebook y twitter, para que cualquier persona pueda informarse al detalle sobre la campaña.

OTRAS ACCIONES:

En primer lugar, en unas semanas va a estar disponible en nuestra página web un informe más amplio sobre la realidad de la vivienda entre las personas atendidas por Cáritas Bizkaia que incluirá un análisis cualitativo, cuantitativo y sociológico sobre este tema en nuestro entorno. Se enviará un aviso cuando esté disponible.

Asimismo, se impartirá una conferencia el próximo martes 16 de abril a las 19 horas en 'Barria' (Plaza Nueva 4, 1º), de Bilbao, con el título "La dimensión social de la vivienda, situación actual y retos", a cargo de Carmen Trilla, experta en temas de vivienda de Cáritas Diocesana de Barcelona.

¡Dales vida!

- **Una casa la hace la gente que vive en ella; sin personas es una "cáscara" vacía. Si tienes un piso que nadie ocupa, al menos ponlo en alquiler; si quieres que más gente pueda tener una vivienda digna, colabora con nosotros ofreciendo tu tiempo, tu dinero, tu solidaridad...**
- **En tu mano está darles vida...a las personas y a las casas vacías.**

| |
|--|
| BBK-Kutxabank: 2095-0119-96-3800121037 :: Caja Laboral: 3035-0134-48-1340555555 :: BBVA: 0182-1290-30-0000295556 :: laCaixa: 2100-0732-21-0200220296 :: Rural Kutxa: 3008-0266-51-2515538920. |
|--|



Apirilaren 14tik aurrera Bilboko elizbarruti osoan

Bizkaiko Cáritasek etxebizitza hutsak lagatzea proposatu du kanpaina berrian, gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako

“Ez pertsonarik gabeko etxerik, ezta etxerik gabeko pertsonarik ere” kanpainaren helburu nagusiak hauek dira: **gizarte-bazterkeria egoeran edo bazterkeria arrisku larrian dauden pertsona eta familiei etxebizitza duina ematea; familia horiekin egon eta laguntza ematea, harremani dagokienez, arlo pertsonalean, lan arloan eta alojamendu arloan aurrera egiteko prozesua errazteko gaitasun eta ezaugarriak garatzeko; eta azkenik, gizartea sentibilizatzea eta denon aurrean salatzea familia askok bizi duten egoera; izan ere, etxebizitza gizarte-bazterkeria faktore bihurtu da.**

i Bizkaiko Cáritas. Bilbo, 2013ko apirilaren 11.- Biztanleriaren zati handi batek arazoak eduki ditu beti etxebizitza duin bat lortzeko. Baina arazo historiko horri, gaur egungo krisi ekonomikoaren barruan, beste bat gehitu zaio, askoz ere dramatikoagoa: arrazoi ekonomikoengatik etxebizitza galtzea. Euskadin 1.100 mailegu baino gehiago exekututzen dira urtero, eta Espainiako gainerako zatian azken 5 urteetako zifra 350.000tik gorakoa da (*Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako datuak*).

Kaleratze horiek jasan dituzten pertsonak krisiak gehien kaltetutako gizarte-sektoreetakoak dira: lana galdu dutenak, batez ere denbora asko langabezian daramatenak, eta horietatik, tradizioan ahulenak izan diren gizataldeak: Etorrinak eta guraso bakarreko familiak. Errealitate gogor horrek gizarte bazterkeriara kondenatzen ditu pertsona eta familia asko, betiko.

Etxebizitza-eskubidea oinarrizko eskubide bat da, ez bakarrik nazio mailako (Konstituzioa...) eta nazioarteko legeetan (Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala), baita Elizaren Doktrina Sozialean (EDS) ere.

Horietatik abiatuta, Bizkaiko Cáritas 2002an hasi zen “Zubi Etxebizitzen” programa batekin. Diru-sarrerarik gabeko edo elkarbizitza unitate bakoitzeko DBEren (diru-sarrerak bermatzeko errenta) azpitik dauden diru-sarrerak dituzten familiak hartzeko programa bat da. 2004an Bizkaiko (eta orokorrean) etxebizitzaren egoerari buruzko ekintza esanguratsu bat garatu zen. Izenburu hau izan zuen kanpaina bat egin zen: “¿Quién tiene la llave? / Zeuk dozu Giltza?”.

2012an, Bizkaiko Cáritasek 139 pertsonari eman zien laguntza programa horren barruan, bere proiektuen bitartez: “zubi etxebizitzak” eta “etxebizitza egonkorra”.

NOLA LAGUNDU:

Cáritasek hiru ekintza zehatz proposatu nahi dizkie Bizkaiko herritarrei, martxan jarriko den kanpaina honen barruan: Etxebizitza hutsak Cáritasen esku uztea, doan edo alokairu txiki baten truke, erakundeak arreta ematen dien pertsona behartsuenen mesedetan erabiltzeko; baliabide ekonomikoak ematea (dohaintza bidez edo Cáritasen bazkide eginez) etxebizitza horiek egokitzeko eta dauzkaten gastuak ordaintzeko eta –azkenik- denbora ematea boluntario bezala, etxebizitza horietan arreta ematen zaien familiekin egoteko eta laguntzeko.

KANPAINARI BURUZ:

Kanpaina hau 2013ko apirilaren 13 eta 14ko asteburuan hasiko da, batez ere Bizkaiko kristau komunitateari zuzenduta, baina orokorrean gizarte osoari helarazi nahi zaio, posible den neurrian.

Gutun-azalak bidali dira inprimatutako materialekin, Bizkaia osoko 300 parrokia eta kultu zentroetara, Cáritasen zentroetara, erlijio-ordenetara, Elizaren mendeko ikastetxeetara, eta abar. Gutun-azal bakoitzak hainbat tamainatako kartelak ditu, liburuxkak, Cáritaseko zuzendariaren gutun bat kanpaina aurkeztuz eta egun horietako eukaristiak laguntzeko liturgia. Gainera, duela egun batzuk jarri zen material guzti hori eskuragarri Bizkaiko Cáritasen webgunean (www.caritasbi.org) eta facebook eta twitter-eko profiletan, nahi duen guztiak kanpainari buruzko informazioa lor dezan.

BESTELAKO EKINTZAK:

Lehenengo eta behin, gure web orrian eskuragarri egongo da etxebizitzaren arloko errealitateari buruzko txosten zabalago bat, Bizkaiko Cáritasek arreta ematen dien pertsonei dagokienez.

Era berean, hitzaldi bat emango da datorren asteartean, apirilak 16, 19:00etan, Bilboko Plaza Barrian (4, 1. Pisua). Izenburua: “La dimensión social de la vivienda, situación actual y retos”. Carmen Trillak emango du, Bartzelonako Elizbarrutiko Cáritaseko etxebizitza gaietan aditua.

Eman bizia!

- **Etxea bertan bizi direnek egiten dute; pertsonarik gabe, etxea “oskol” hutsa da. Hutsik dagoen pisu bat badaukazu, gutxienez jar ezazu alokairuan; jende gehiagok etxebizitza duina izatea nahi baduzu, egin lan gurekin zure denbora, dirua, elkartasuna eta abar eman.**
- **Zure esku dago bizia ematea... pertsoneri zein etxebizitza hutsei.**

| |
|---|
| BBK-Kutxabank: 2095-0119-96-3800121037 :: Euskadiko Kutxa: 3035-0134-48-1340555555 :: BBVA: 0182-1290-30-0000295556 :: laCaixa: 2100-0732-21-0200220296 :: Rural Kutxa: 3008-0266-51-2515538920. |
|---|